

## PRENTSARAKO OHARRA

18/07/12

### **Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen aurkako plataformaren ordezkariak Supersur izeneko luatzearan ganeke gogoetea egin dau**

Enrique Antolín Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidearen (MHS-VSM) aurkako plataformako kidea Eskaeratarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzordera etorri da gaur goizean, Supersur izeneko luatzeko proposamenaren ganeke hainbat argumentu azaltzeko eta horri buruzko gogoetea egiteko.

Bilboko Metropoli Guneko (BMG-AMB) errepide nagusietan 2011 eta 2016 urteen artean trafikoak izan duen bilakaeraren balantzea egin ostean, “kopuruak eskuetan hartuta azpiegitura ez dala justifiketan” adierazo dau Antolínek; “uste dogu eskaria modu logikoan justifiketan daben agertokiak ez datozala bat ibilgailu kopuruagaz”. Plataformako kideak esan dauenez, MHS-VSM errepidea BMG-AMBko trafikoaren %5era baino ez dago zuzenduta, “eta benetako arazoa barruko trafikoak eta bertara sartzen danak eragiten dau”, hori dalako bertako trafikoaren %95a. Bere azalpenean, Enrique Antolínek, proiektu horrek Pagasarrin (Bolintxu) izango leukezan eragin batzuk be aitatu ditu, bai landareetan eta baita animaliak bizi diran habitatetan be, “lur-erazketa handiak edo lurren mobimenduak dirala eta topografiak jasango leuken aldaketea” ahaztu barik.

Gaur aztertu eta azaldu dan beste puntu bat, dentsidade txikiko etxebizitzek leku jakin batzuetako trafikoak gora egitean daukien eragina izan da, Txorierriko igarobidean, besteak beste. Holan, adierazo danez, Loiu, Zamudio, Lezama eta Sondika udalerriek motorizazio tasa (automobila daukien 18 urtetik gorakoen ehunekoa) altua daukie. Esan dauenez, “konponbide gaitza daukan arazoa” da, bertan garraio publikoa jaratea ezinezkoa dalako, “garraiatutako persona bakoitzeko kostu ekonomikoak eta ingurumenekoak jasanezinak izango litzatekezalako”.

Taldeen txandan, Nuria Atienza Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak adierazo dauenez, “bitxia bada be, Bizkaiko Foru Aldundiak egin ebazan azterlanak ez datoz bat errealidadeagaz”. Modu berean, EH Bilduko Zigor Isuskizak “holango azpiegiturakaz hasi aurretik motorizazio indizea murriztuko daben azpiegiturak eta zerbitzuak sustatu beharko dirala” adierazo dau. Eduardo Andrés batzordekide popularrak, bere aldetik, “faltan bota ditu” 2017ko datuak, eta plataformako ordezkariak 2017ko txostena ez dagola oraindino eskuragarri erantzun deuto.

Irene Edesa Euzko Abertzaleak taldeko ordezkariak, batzordera etorri dan kideari bere azalpena eskertu deutsan arren, bere taldea jarrera desbardinetan oinarritzen dala esan deuto. “Gure taldetik jarduketa horren alde gagoz, itsasadarraren mailatuagaz batera, trafiko pilaketa arazoak konponduko ditualako”, adierazo dau. Modu laburragoan, Juan Otermin batzordekide sozialistak Antolínen esku-hartzea “bikaina” izan dala esan dau, eta AHTak, Bilboko Aireportua Forondakoaren aurrean indartzeak, eta Lamiakoko erreka

azpiko igarobideak ibilgailuen joan-etorrian izan daikien eraginaren inguruan itaundu deuto. Plataformako kideak ezin izan ditu galdera guztiak erantzun, adierazo dauenez, “bakotxerako monografiko bat beharko litzatekelako”.

NOTA DE PRENSA

12/07/18

## **Una representación de la Plataforma en contra de la Variante Sur Metropolitana reflexiona sobre la ampliación de la Supersur**

Enrique Antolín, en representación de la Plataforma en contra de la Variante Sur Metropolitana (VSM) ha comparecido esta mañana en la Comisión de Peticiones y Relaciones con la ciudadanía para exponer una serie de argumentos y reflexionar acerca de la ampliación de la Supersur.

Tras realizar un balance de la evolución del tráfico entre los años 2011 y 2016 de las carreteras preferentes del Área Metropolitana de Bilbao (AMB), Antolín ha manifestado que “con los números en la mano no se justifica la infraestructura; creemos que los escenarios que justifican la demanda de forma lógica no corresponden con los aforos”. Según el compareciente, la VSM únicamente está dirigida al 5% del tráfico de la AMB, “cuando el problema fundamentalmente viene derivado por el tráfico interno y de penetración”, lo que constituye el 95% del mismo. Enrique Antolín en su exposición también ha mencionado algunos de los impactos ambientales que acarrearía este proyecto en el Pagasarri (Bolintxu), tales como una afección tanto a la vegetación como a hábitats faunísticos, la “modificación de la topografía debido a los grandes desmontes” o movimiento de tierras.

Uno de los aspectos analizados y expuestos hoy también ha sido la influencia que las viviendas de baja densidad tienen en el aumento del tráfico en zonas como el corredor del Txorierri. En este sentido ha señalado que los municipios de Loui, Zamudio, Lezama y Sondika tienen una alta tasa de motorización (porcentaje de personas mayores de 18 años que tienen coche). Este se trata, según ha manifestado, de un “problema con difícil salida” al no poder poner transporte público, puesto que “los costes económicos por persona trasladada y los costes medioambientales son insostenibles”.

En el turno de los grupos, la representante de Podemos Bizkaia, Nuria Atienza, ha manifestado que “lo curioso es que los estudios que hizo la Diputación Foral de Bizkaia no corresponden con la realidad”. De igual manera, Zigor Isuskiza, del grupo EH Bildu ha declarado que “antes de empezar con infraestructuras de este tipo habría que promover y fomentar infraestructuras y servicios que reduzcan el índice de motorización”. El apoderado popular, Eduardo Andrés, por su parte ha “echado en falta” los datos correspondientes a 2017, a lo cual el representante de la plataforma le ha respondido que el informe relativo a 2017 no se encuentra aún disponible.

La representante del grupo Nacionalistas Vascos, Irene Edesa, a pesar de agradecerle al compareciente su exposición, ha declarado que su grupo y él parten de posturas diferentes. “Desde nuestro grupo respaldamos esta actuación porque junto con el mallado de la ría va a dar solución a esos problemas de congestión”, ha expresado. De forma más breve, el apoderado socialista Juan Otermin ha definido la intervención de Antolín como “brillante”, y le ha interpelado acerca de la influencia que pueden generar en el tránsito de vehículos el AVE, la potenciación del Aeropuerto de Bilbao frente al de Foronda, y el

subfluvial de Lamiako. Una pregunta a la que el compareciente no ha podido responder del todo ya que, según ha expresado, “cada una de ellas necesitaría un monográfico”.